



Dela 50 urte, feriako eskopeta batzuekin, ero talde armatu batek Cubako Moncada kuartela erasotu zuten. Baztertuak, errekurtsorik gabe baino armatuak eta erabaki zuzen eta ausardiak, oligarkia iparramerikarraren interes imperialistak babestem zituen diktadura gogorren aurka erasotu zuten. Urte batzuk beranduago ustezko ahul hoiek, gerrilla bezala, ejerzito sistema kapitalista osoa garaitu zuten.

Estatu espainiarrean, ehundaka militante, estruktura kapitalistaren aurkako sabotaiak eta erasoak egiten dituzte astero. Erresistentzia taldeek ekintza hauek begi honez ikusten dituzte, zergatiak ulertuz eta bizitzeko era justuagoetara heltzeko beharrezkoa ikusten baitute sistema honekin haustea. Oraindik gerrilla bezala funtzionatzen ez duen estruktura gerrillero baten aurrean aurkitzen gara, ondorioz estatuari errexago egiten zaio errepresioa bultzatzea eta ekintza deskoordinatuen minak minimizatzea.

Non dago gure Moncada? Nola erasotu? Noiz?

Agian galdaren erantzunen batetik aterako da erresistentzia antikapitalista desberdinen batura..... Erresistentzia.

Amanda eta Edu-ren gutunak. Valentzian poliziak torturatutako anarkistak.



Estatuko kartzeletan tortura jasandako bi lagunentz hitzak. Azkenik ez dira "terrorismo" bezala prozesatuak izango.

Edu: Astelehen arratsaldeko 6ak izango ziren eta nire auzotik bakarrik pasiatzen ari nintzen, gazte bat zigarro eske urbildu zitzaidan eta momentuan, buruan golpe bat sentitzen dut eta lepotik heldu zidaten, hor hasi zen amesgaiztoa.

Lurrera bota ninduten eta bultzaka eta ostika berehala heldu zen kotxe batean sartu ninduten, esposatuak poliziak batek burua heldu eta lurreraino bultzatzen zidan, mina egiten ari zitzaidala esan nion eta edo ixiltzen nintzela edo egurtu egingo ninduela erantzun zidan. Nire atxilotetaren arrazoiak galdetzen diet eta hurrengo 5 egunetan jakingo nuela erantzun zidan.

Komisariara heltzean, bultzakada eta osti tarteetan, komisariako pisu batera igo ninduten. Enkaputxatuek gela batean sartu eta bultzakada batez paretaren aurka jarri ninduten.

Momentu berean inspektore bat agertu zen eta nire aurpegian ostika ari zen bitartean Amanda eta neri ordua heldu zitzaigula esaten zuen. Aitortu nezan esan zidan edo bestela hurrengo 5 egunetan oso gaixki pasako nuela, lehio aldera bultzatzen nau eta behera botatzearekin mehatxatzen nau potroak ikutzen jarraitzen badut, nik ixilik jarraitzen dut, besteak estutu eta ni egurtzen hasten dira, batek esposak hartu eta goraka bultzatzen dizkit, besoan kriston mina egiten didalarik, hurrengo 5 egunetan inkomunikaturik egon naitekeela jartzen duen papela bat erakusten didate...

Amanda: [...] Hiru ekintza asumitu nituen, kajero baten erreketak aislamenduaren aurka eta presoekin elkartzunez; grua baten erreketak Cabanyaleko proiektu urbanistikoaren aurka; eta España 2000 partidu faxistaren aurka zioan eta korreosen lehertuz sobre bombaren fabrikazio eta bidalketa. [...]

[...] Montajeaz hitzegitea EZ litzaide gustatuko, ezta errepresioaz eta ezta ere betiko tonoko biktimista erabiltzea. Gertatu dena, gaur egun bizi dugun egoera globalaren barruan sartzea gustatuko litzaide, egon zen, dagoen eta egongo den klase borrokaren barruan, estatua eta kapitalismoa existitzen den bitartean.

Atsegin zaidan beste ideia bat, esan ditudan ekintzei buruz edozeinek egin ditzakeela da, edozeinek eman liezaiokeela ostiko bat zapaltzen gaituenari. Ez dut nahi bildurrik ezer itzalean utzerik, inor ez dadin "moderatu", "formak" aldatu, "beste hizkuntza bat erabil dezan", "bide berriak aurkitu ditzan", horrelako kakarik ez. Konfiantza osoa dut anarkismoak betidanik erabili dituen metodoetan.

[...] Kantak dioen bezala, "gehien ikaritzen nauena guztiak berdin jarraitzea da" edo beste kanta batek dioen bezala, "ez itxoin gauzak zu gabe aldatzerik, ez dira aldatuko".

Rebeldía en Euskal Herriak euskaratua; www.rebeldiaeneh.tk

Tesalonikako atxilotuen egoera.



7 Atxilotuen artean Carlos Martin Martinez espainiarra da koktel molotovak botatzen ikusi duten testigurik ez duen bakarra, bere kartzelaratzearen errudunak ordea Greziako informazio bideak dira,

terroristatzat aurkezten dutelarik, talde anarkista biolento baten kide eta Euskal talde terroristak baten parteide. Atxilotu guztiak kargu berberak aurkezten zaizkie: koktel molotovak jabetza (Greziar leherkaritzat daukate), autoritaterari erresistentzia, manifestaldi biolentoan parte hartzea, armen eduki eta erabilera eta sutak. 2-12 Urteko kartzelazigorra aurreikusten da beraientzat, Greziar orde, anarkistek, ez zaie inoiz 5 urtetik gorako kartzelazigorrik ezarri. Email hauetara idatz diezaioketue:

contacts2003@disobey.net o finacial2003@disobey.net.

Etxerategi elkarretaratzeak deitu ditu datorren igandean Euskal Herriko hondartzetan.



Euskal preso politikoen senideen elkarteak, Etxerategi, elkarretaratzeak deitu ditu datorren igandean Euskal Herriko hainbat hondartzetan, kartzelan dauden euskal herritarrei elkartzuna adierazteko. Etxerategi emandako datuen arabera, 130 preso inguru daude isolamenduan kartzela ezberdinetan. Gainera, Gaztelumendik nabarmendu duenez, "ikasketak Euskal Herriko unibertsitateetan burutzea ere debekatu zaie". Osasun egoerari dagokionean, gogoratu du konfiantzako mediku batek Bautista Barandalla presoari bixita egin zion azkeneko aldia "preso honek har ez dezakeen medikazio bat ematen ari zitzaiola" ohartu direla. Hizkuntza eskubideak ere ez zaizkie errespetatzen, Etxerategi azpimarratu duenez. Izan ere, "arazoak dituzte euskaraz mintzatzeko kartzela barruan" eta, bestetik, presoak bixitatu ditzaketen lagunentz kopurua gero eta murriztagoa dela ere oroitarazi dute. Halaber, 662 preso inguru daudelako dagoeneko 8 estatu ezberdinetako espetxeetan kartzelatuak. Hau guztia dela eta, Etxerategi deialdia egin du datorren igandean, abuztuak 3, Euskal Herriko zenbait hondartzetan eguerdian egingo diren elkarretaratzeetara bertaratzeko, presoentz giza eskubideak aldarrikatu eta hauei elkartzuna adierazteko

Carlo, Ez dugu ahaztuko.



Genova 2001. Duela bi urte. Carlo, europako globalizazioaren aurkako mugimenduaren lehen biktimak. Hainbat lekutatik hartuta eginiko dossierra: hainbat indymedia, Nodo50, Rebelion, La Haine... www.iespana.es/quesevayantodos-ya/carlo.html

Borroka sarean

www.nodo50.org/resumen
www.mediaberri.org
www.euskalherria.indymedia.org
www.stoptortura.org
www.kalegorria.net

www.rebeldiaeneh.tk
www.nodo50.org/ehk
www.barcelona.indymedia.org
www.gaztesarea.org
www.segi-gazte.com
www.nodo50.org/izca

www.antorcha.org
www.galiza.indymedia.org
www.nodo50.org/rashmadrid
www.boltxe.net
www.cnt.es/gipuzkoa



